

# Nola baliatu haurren eta nerabeen ahotsa erabakiak hartzeko orduan?

Administrazio publikoek haurrei eta nerabeei aktiboki entzuteko gomendioen gida



**Izenburua:** Nola baliatu haurren eta nerabeen ahotsa erabakiak hartzeko orduan? Administrazio publikoek haurrei eta nerabeei aktiboki entzuteko gomendioen gida.

© **Educo (2023)**

*Baimenduta dago lan honen kopia osoa egitea, edo zati batena, edozein bide edo prozeduraren bidez, betiere, iturria aipatzen bada eta helburu komertzialik gabe egiten bada.*

Espanian inprimatua

**Koordinazioa:** Dirección de Incidencia e Investigación Social (Gizarte Intzidentzia eta Ikerketa Zuzendaritza)

**Testuak:** Gema Luengo, Laura Orellana

**Lankidetzak:** Paula San Pedro, Miriam Torán

**Zuzenketa:** Ester Pino

**Diseinua:** Judit Suñol

**Ilustrazioak:** Eduard Altarriba

**Argazkiak:** Educo-ren artxiboa

Dokumentu honetan erabilitako argazkiak ilustratiboak baino ez dira, eta inola ere ezin da esan edukia islatzen dutenik.

**Esker onak:** esker on berezia Santo Domingo de Guzmán (Palentzia), Institut Escola Jacint Verdaguer (Bartzelona), Asociación AVAIN (Sevilla) eta IESO 4 de Junio (Cuenca) ikastetxeetako ikasleei eta irakasleei, Entzumenaren Postontziaren bidez neska-mutilen ideiak jasotzeagatik. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Entzutearen Kontseiluan parte hartu eta, haur eta nerabeen ahotsak beraiei eragiten dieten gaietara buruzko erabakiak hartzen dituzten pertsonengan eragina izan dezaten, bozeramaile gisa lan egin dutenei.

*Dokumentu honetan landutako gaietara buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan helbide honetan:*

[educos@educos.org](mailto:educos@educos.org)

# Edukia

Sarrera: entzuten hasteko datu batzuk	4
Nork bere burua mintzakidetzat izatearen garrantzia	9
Neska-mutilak bereziki kezkatzen dituen gai bat: indarkeria eta elkarbizitza	20
Kontu-ematea	22
Ondorioak	24
Bibliografia eta beste baliabide batzuk	26



# Sarrera:

## entzuten hasteko datu batzuk


Educok **Campaña Activa la Escucha** (Aktibatu Entzutea Kanpaina) dauka abian 2020z geroztik, hurrei eta nerabeei aktiboki entzuteko guneak sustatzeko xedez, maila guztietan: gizartean oro har, erakunde eta administrazio publikoetan, baina baita neska-mutilek denbora gehien ematen duten eremuetan ere, hala nola familian eta eskolan. Esparru horretan, gomendioen gida hau Proyecto Activa la Escucha 2023: *De la audiencia a la influencia, un paso necesario para hacer efectiva la participación de niños y niñas en la defensa de sus derechos* (Aktibatu Entzutea Proiektua 2023: Entzutetik eraginera, beharrezko urratsa hurrek beren eskubideen defentsa efektiboa egin dezaten) ezartzearen ondorioz sortu da. Dokumentu hau Espainia osoko zenbait ikastetxetako neska-mutilek parte hartu duten prozesu parte-hartzaile batetik ateratako ikaskuntzen eta ondorioen laburpen gisa sortu da, eta **neska-mutilen eragina eta protagonismoa sustatu nahi ditu beraiei eragiten dieten gaiei buruzko erabakietan eta beraien eskubideen defentsan.**

### Haurren eskubideei buruzko konbentzioa:

“Haurrak eskubidea du bere iritzia adierazteko eta iritzi hori kontuan hartua izateko berari eragiten dioten gai guztietan”

### 8 /2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, hurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa ematekoa:

- Xedeen artean du neska-mutilen parte-hartzea sustatzea.
- Irizpide nagusien artean du hurrek eta nerabeek beraiei eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko duten eskubidea gauzatzeko dutela bermatzea.



Prozesu parte-hartzaile horretan, Educok **Entzutearen Postontzia** deritzona (Buzón de la Escucha) jarri du abian. Postontzi birtual horretan, hainbat ikastetxetako 11 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek eta adimen-urritasuna duten pertsonentzako zentro okupazional batekoek ideiak eta proposamenak bildu dituzte beren bizitzetara eragiten dieten gaietara buruzko erabakiak hartzen dituzten administrazioetan parte hartzeko moduz eta entzunak, kontsultatuak eta parte hartzera gonbidatuak izatea nahiko luketen moduz. Gida honetan eskaintzen diren datuak kontsulta horren zati dira. Guztira 145 pertsonak hartu dute parte (70 mutilek, 70 neskek eta bestelako gisa

definitzea edo ez definitzea nahiago izan duten 5 pertsonak). Hala ere, kontsultaren balioak ez du funtsean datuekin zerikusirik: datu horiek aztertu ondoren, **Entzutearen Kontseilua** deritzona (Consejo de la Escucha), Entzutearen Klubak<sup>1</sup> deritzenetako (Clubs de la Escucha) bozeramaileek osatua, Postontziaren emaitzak aztertzen eta eztabaidatzen aritu da, erabakitzeko zein mezu eta ondorio transmititu administrazio publikoei, hobetu ahal izateko hala entzute-prozesuak nola neska-mutilek beraiei eragiten dieten erabakietan parte hartzeko duten gaitasuna. **Gomendioen gida hau lan parte-hartzaile horren guztiaren emaitza da.**

<sup>1</sup> Activa la Escucha Kanpaina egiten duten hezkuntza-zentro edo erakunde bakoitzeko haurren partaidetza-taldeak.

Alde horretatik, abiapuntuko datu batzuk azalduko ditugu ondoren, agerian uzteko zer iritzi duten neska-mutilek entzunak sentitzen diren moduari buruz. Parte-hartzaileen beste datu eta azterketa batzuk jaso dira gidan, eta, horri esker, **gomendioak egin ahal izan ditugu neska-mutileen entzute, kontsulta eta parte-**

**hartze prozesuak hobetzeko.** Hala, **hautzaroko eta nerabezaroko ahotsen protagonismoa abiatuta**, Educok **helduzentrismoari aurre egiten lagundu** nahi du, horrek neska-mutilek beraien eguneroko bizitzari eragiten dioten arloei buruz dituzten ikuspegiak **gutxieteko joera** baitu.

## Entzutearen postontziaren datu batzuk

Parte-hartzaile gehienek **ez dute inoiz** beren udalerrria hobetzeko **proposamenik egin** (%73,79k ezetz esan du, eta %25,5ek baietz). Hala ere, gehienak parte hartzeko prest sentitzen dira (%72k baietz esan du).

- Parte hartu dutenean, neska-mutilek batez ere **beren ingurune komunitarioan eta ikastetxean egin dituzte proposamenak, eta kartel, pankarta edo horma-irudien bidez.**
- Neska-mutilek adierazi dute **ez dutela parte hartu** hainbat arrazoiengatik: **ez dutelako aukerarik izan** edo ez zitzaielako bururatu parte har zezaketenik; ez direlako prest sentitu **konfiantza faltagatik** (bereziki nesken kasuan) edo **aurreko prestakuntza faltagatik**. Beste pertsona batzuek diote ez dutela parte hartu nahi izan uste dutelako **persona helduek ez dietela entzungo**. Kasu batzuetan, erantzun dutenek adierazi dute ez dutela parte hartu ez dutelako astirik izan.

Ez dut parte hartu badakidalako ez didatela entzungo.

Uste dut seguruago izatea eta konfiantza handiagoa izatea falta zaidala.

Ez naiz prestatuta sentitzen ez dudalako gaia sakon ezagutzen.

Eragiten dieten gaiei buruzko erabakiak hartzen dituzten pertsonak entzuten dietela eta aintzat hartzen dituztela sentitzen ote duten galdetu diegunean, neska-mutil gehienek honako hau adierazi dute: **“entzuten didate, baina ez dituzte aintzat hartzen nire ideiak”** (%42). %19k erantzun du ez dietela entzuten eta dituztela aintzat hartzen, eta %10ek dio gaiaren arabera aldatu egiten dela kontua. %26k baino ez du esaten entzuten dietela eta beren ideiak aintzat hartzen dituztela. %4k ez du erantzun edo “beste batzuk” erantzuna aukeratu du.

- Ildo berean, Entzutearen Kontseiluko bozeramaileek adierazi dute ikastetxeek tutoretzak izan ditzaketela bizikidetza hobetzeko, **baina ez dakitela aldaketarik dagoen edo aurkeztutako ideiak ezertarako balio duten**. Ikasgaiaren edo irakasleen arabera izan daitekeela adierazi dute. Gauza bera gertatzen da maila komunikatiboan, adibidez, Europar Batasunean parte har dezaketen espazioak daudenean baina ez dakitenean horiek inolako eraginik duten, eta ez daukatenean udal-eskumenei, aurrekontuari eta parte-hartze moduei buruzko informaziorik, eta horien berri jakin nahiko luketenean.
- Entzutearen Kontseiluak nabarmendu du neska-mutilek parte hartzeko ekimenik ez izateko arrazoietakoa bat dela **ez dutela konfiantzarik edo lotsa ematen diela** jendaurrean hitz egiteak, gerta daitekeelako beraien ideiak barregarritzat joak izatea edo aintzat hartuak ez izatea. **Helduek konfiantza ematearen, enpatikoak izatearen eta ez epaitzearen garrantzia aldarrikatzen dute**. Halaber, adierazi dute garrantzitsua dela parte hartzean **askotariko erreferenteak izatea** konfiantza izateko eta ahalduzko (adibidez, **erabakiak hartzen dituztenen artean** aniztasun funtzionaleko edo generoko, etniako, kulturako... aniztasun egoeran dauden pertsonak izatea).



Neska-mutilek argi dute **kontsultatuak izan nahi dutela beraiei eragiten dieten erabakiak hartu aurretik**. Zein gairen inguruan parte hartzea, edo iritzia ematea, gustatuko litzaiekeen galdetu genienean, honako hau esan ziguten nagusiki:

- Edozein gairi buruz.

**Kontu guztiak, etorkizuna erabaki horien mende dagoelako eta helduei ez dielako eragingo.**

- Hezkuntzako gaiak, adibidez, etxerako dituzten lanetan, ikastetxeko edo jasotzen dituzten hitzaldien ordutegi-aldaketetan.

**Ematen dizkiguten hitzaldiak, jakitea interesatzen zaiguna esateko.**

**Hezkuntza berezia.**

- Beren ingurune komunitarioko kontuak (udalerria, herria, auzoa...).

**Herriaren hobekuntzako kontuak.**

**Gure adinean garrantzitsuak diren kontuak, hala nola erreformen kontu publikoak (parkeak, pistak, dendak, gizarte-zentroak...), jarduerak...**

- Indarkeria, diskriminazio, berdintasun eta dibertsitate kontuak.

**Bullyingaren arazoari buruz.**

**Abusuari, arrazismoari, homofobiari eta diskriminazioari buruz, gerrei buruz eta abar.**

- Kirol eta aisialdi kontuak.

**Herrian praktikatu daitezkeen kirolak, adin guztietarako jarduerak...**



# Nork bere burua mintzakidetzat izatearen garrantzia

Neska-mutilek politikarien irudi ona ez dutela adierazi dute. Ez dute uste politikariek beraien irudi ona dutenik ere. Iruditeria horrek zaildu egiten ditu neska-mutilen ulermena, konfiantza eta eragin-aukerak beraien eragiten dieten gaietan. Hala ere, ulermen hori hobetzeko hainbat aholku ematen dizkigute. “Hiru H-ak” deitu diegu.

## Neska-mutilek esaten digute...

**Neska-mutilei galdetzen diegunean beraien zer irudi duten ordezkari politikoek**, adierazten dute, eskuarki, politikariek ez dituztela beraien ideiak baloratzen edo ez dituztela behar den neurrian kontuan hartzen. Uste dute nerabeei buruzko irudi distorsionatua izaten dutela sarritan, estereotipo negatiboz osatua. Adibidez, nerabe batzuen jokabideak orokortu egiten dira, eta neska-mutil guztiak berdintzat jotzen dira.



Irudi ona dute.

Nik uste dut ez zaiela askorik axola, guk ez baitugu botorik.

Uste dut asko orokortzen dutela eta nerabeak kriminaltzat, bazter-nahasletzat eta abar hartzen dituztela.

**Neska-mutilei galdetzen diegunean ordezkari politikoei buruzko zer irudi duten**, hori ez da izaten haien oso aldekoa, uste baitute askotan kontu ekonomikoek eta helduen munduan zentratutakoek dutela lehentasuna. Horrez gain, uste dute pertsonentzat baliagarriak ez diren politikak ezartzeak eta promesak ez betetzeak mesfidantza eragiten dutela. Mesfidantza horrek haurrak eta nerabeak politikarekin zerikusia duten kontuetatik desatxikitzea eragin dezake.

**Azkenean egiten ez dituzten gauzak esaten dituzte batzuetan.**

**Dirua besterik nahi ez duten batzuk.**

**Politikari bakoitzaren arabera. Batzuek oso lan ona egiten dute, erabaki onak hartuz, baina beste batzuek guztiz kontrakoa.**

**Irudi ona transmititzen didate. Segurtasuna ematen didate.**

**“Hiru H-ak”. Elkarren irudia eta neska-mutilek erabaki hartzaile gisa duten eragin ahalmena hobetzeko gomendioak.**

- **Haurtzaroaren kultura**
- **Haurren eta nerabeen parte-hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan**
- **Haurrei eta nerabeei egokitutako komunikazioa**

# Haurtzaroaren kultura

Haurtzaroaren kultura onartu eta balioesteak errespetua eta empatia eskatzen du:

- Garrantzitsua da **haurrak eta nerabeak balioestea**: hortik hasten da neska-mutilak erabakietan eragiteko orduan solaskide baliodun gisa onartzeko ahalegina.
- **Haien balioa desberdintasunari lotuta dago**: haurtzaroa eta nerabezaroa etapa desberdinak dira helduaroarekin alderatuta, baina ez dira horregatik balio txikiagokoak. Begirada **desberdin** batetik, **helduek ikusten ez dituzten** alderdiak har ditzakete kontuan. Gainera, etapa desberdina izateak ez du esan nahi haur eta nerabe guztiak berdinak direnik, eta hori nabarmentzen dute neska-mutilek.
- Balioesteak, aldi berean, neska-mutilei **zilegatasuna eta konfiantza** ematea dakar, eta parte hartzen uzten zaien edo ez, edo esaten dutenari buruz izan ditzaketen zalantzei eta lotsari aurre egiten laguntzen du. **Haien ideia guztiak baliotsuak direla nabarmendu behar da**, ikuspuntu bakoitza bakarra baita.

Diren eta garen bezala onar ditzatela.

Ez daitezela zuzendu "gaur egungo nerabeak..." esanez. Mende bakoitzak eta aldi bakoitzak mota bateko pertsonak ditu, eta gure aldia errespetatu beharko lukete.

Nik esango nieke pentsatzeko beraiek haur edo nerabe ziren garaian, eta pentsamendu horretatik hartzeko erabakiak.

**Beharrezkoa da (...) haurren ariman sakontzea, haien benetako ideia, teoria, hipotesi, sentimendu, zentzu eta begiradetan figura polisentsorial gisa. Horri guztiari entzutearen pedagogia baten bidezko haurtzaroaren kultura deritzogu.<sup>2</sup>**

<sup>2</sup> Alfredo Hoyuelos (2017), Espainiako edizioaren hitzaurrea, hemen: Loris Malaguzzi y las escuelas de Reggio Emilia Una selección de textos y discursos de 1945 a 1993, p. XIII.

# Haurren eta nerabeen parte-hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan

Neska-mutilak **eskubideen subjektu** dira orainaldian. Parte hartzeko duten eskubidea errealitate bihurtzeko esan nahi du haiei entzutea eta haiei eragiten dieten erabakiak hartzean haiek kontuan hartzea.

▪ **Entzuteko, kontsultatzeko eta parte-hartze** eraginkorreko prozesuak ireki behar dira.

• **Nondik** ireki daitezke?

- **Eskolatik:** batzarrak eta ikasle-elkarteak sustatuz, baliabide materialak eta finantzarioak emanaz eta ikastetxearen laguntzarekin egindako kontsulten bidez, adibidez, tutoretza-orduei eskera.
- Haurren parte-hartzea sustatzen duten eta administrazio publikoetan eragina duten **gizarte edo auzo erakundeetatik**.

– **Udalerrietatik:** haurren eta nerabeen kontseiluei lagunduz, parte hartzeko eskola-taldean edo gizarte-erakundeetan entzunaldiak sustatuz...

• Nolakoak izan behar dute prozesu parte-hartzaile horiek?

– **Hasieratik jaso behar dituzte neska-mutilen interesak**, beharrak eta nahiak. Horrenbestez, parte hartzeko prozesuaren diseinutik abiatuta, funtsezkoa da neska-mutilak bertan egotea.



Eskubideak dituzten  
pertsona guztiei entzun  
ziezaietela.

Bada, kasu egin  
diezaietela haurrei,  
horiek ere burua  
dute eta.



Parte hartzeko prozesuak abian jartzea zailtzen duten pertsona helduen ideia batzuk **neska-mutilek “beti gauza ezinezkoak” eskatuko dizkigutela pentsatzean** oinarritzen dira, hala nola jolas-parke bat, Errege Magoei gutuna... Hala al da? Litekeena da hori izatea txanponaren alderdi bat, baina bada beste bat: litekeena da aisialdiko eta abenturako beharrak eskatzen aritzea, gauza berri eta dibertigarriak... Neska-mutilen **berezko (eta balio handiko!) premia batzuk daude sakonean, kontuan hartu beharrekoak**. Garrantzitsua da proposamenak aztertzea, elkarrizketaren eta entzute aktiboaren bidez, neska-mutilen ideiak ulertzen eta lantzen joateko, askoz ere gehiago gauzatu daitezten. **Premia eta nahi horiek itzultzea sekulako erronka da!**

Parte hartzeko prozesuak abian jartzea zailtzen duen helduen beste ideia **bat (helduista) neska-mutilek desio asko... baina erantzukizun gutxi** dituztela uste izatearekin lotuta dago. Haurren eta nerabeen parte-hartzea lantzen dugunean, ordea, konturatzen gara kontrakoa gertatzen dela: lanak banatzen baditugu eta neska-mutilek beraienak direla sentitzen badute, erantzukizuna askoz ere errazago sortzen da. Adibidez, parke bat modu parte-hartzailean ko-diseinatzeko aukera ematen badugu, parke hori askoz gehiago zainduko du hura gozaten duen eta hura sortzen lagundu duen neska-mutil taldeak. Ez al da logikoa? Erantzukizunak modu abstraktuan eskatzeak, helburuak atzemateko prozesu bat erraztu gabe (hau da, neska-mutilek egiten dutenari zentzurik eman gabe), zereginak banatu eta motibazioa sentitu gabe... horrek oso eragin murrizta du! Horregatik, **parte-hartzeak prozesu bat izan behar du, eta erantzukizunak inplikaturako pertsona guztien artean partekatzeko gonbidapena egin behar du.**

Nik aholkatzen diet guri  
interesatzen zaizkigun gauzei  
buruz hitz egin diezagutela,  
eta ez interesatzen ez  
zaizkigunei buruz.

Beraiengana zuzendu  
daitezela behingoz.

Geure gauzei buruz ere  
galdetu diezagutela.

# Haurrei eta nerabeei egokitutako komunikazioa

- Neska-mutilekiko komunikazioak **hizkuntza egokitua** izan behar du oinarri, hau da, argia, zehatza eta **inklusiboa** izan behar du.

Hitz tekniko gutxiago erabiltzen saiatu (modu soilagoan hitz egin, ez hain modu matematiko edo zientifikoan).

Oso gustuko izango nuke haiek hobeto ulertzea; beraz, eskatzen dut, mesedez, hitz egin dezatela nerabeontzat oso "arrotzak" ez diren hitzekin.



## Entzutearen Kontseiluaren gomendioak politikariei beren komunikazioa hobetzeko:

- **Teknizismoak saihestu.**
- **Esaldi labur eta soilak sortu.**
- **Harira joan**, ideia bera hainbat alditan errepikatzea saihestuz (horrek mezuaren transmisioa konplikatzen du).
- **Metafora konplikatuen erabilera minimizatu**, lehentasuna emanez **sinbolismo gutxiagoko hizkuntza bati**.
- **Asteriskoekin adierazi komunikazio idatzian erabilitako hitzik teknikoen definizioak**, adibidez, glosario bat egiteko aukerarekin.

- Neska-mutilekiko komunikazioak, eraginkorra izango bada, kontuan izan beharko lituzke haien interesak komunikazioa gertatzen den **kanalei** dagokienez.

Pertsona atseginak etorri eta aurkezpenak edo bideoak egin zitzaizela.

Albisteak egin, baina nerabeentzat.

## Neska-mutilek esaten digute...

...**kanal** eta bitarteko hauen bidez **informatzen** direla:

- Neska-mutileen %55ek adierazi du **sare sozialak direla** informazioa lortzeko **aukera erabiliena**.
- Familia-eremuaren zeregina ere garrantzitsua da: %48k adierazten du **familiak** zuzenean eragiten dieten gauzak kontatzen dizkiela, eta %47k, berriz, **etxean** aurkitzen dituen iturrien bidez informatzen dela (adibidez, telebistako albistegian edo egunkari batean).
- **Ikastetxean** ere jakiten dute neska-mutilei eragiten dieten gauzen berri, diotenez (%38).
- Azkenik, %34 **espazio publikoetan** jarritako informazioaren bidez informatzen da (adibidez, autobusaren geraleku bat edo iragarki-taula bat).

 GAURKOTASUNA






## Neska-mutilak beraiei eragiten dieten erabakietan inplikatzekeo informazio eta parte-hartze kanalei buruzko gomendioak

- Neska-mutilekin komunikazio efizientea izateko, **sare sozialak erabili** behar dira, haien informazio-lehentasan nagusietara egokituta: adibidez, **bideo laburren edo mugikorretarako aplikazioen bidez**. Ideia batzuk:
  - Aktualitateko telebistako albistegi laburrak, *youtuber* edo *influencer* batzuek egiten dituztenen antzekoak.
  - Mikrobideoak, eragiten dieten gaien edo haurrei eta nerabeei irekitako parte-hartze prozesuen berri emateko.
  - Udalerriko kontu bat sare sozialetan.
  - Politikarien eta neska-mutilen arteko bideokonferentziak.
  - **Influencer-en laguntza bilatu haurrei eta nerabeei zuzendutako ekimenei ikusgarritasuna eman diezaieten, haientzat erakargarriagoak izan daitezten eta kontsultatu ohi dituzten kanalen bidez jaso ditzaten.**

Gazteentzako aplikazio bat sor lezakete, eragiten diguten gertaera berri guztiak jasotzeko, eta, hitz konplexurik baldin badago, gainean klik eginda definizio simple bat emanez.







- **Ikastetxea** leku ezin hobea da neska-mutilei informazioa emateko eta parte hartzera gonbidatzeko, adibidez, **tutoretzen** garaian, horietatik **ordezkari instituzionalak gonbida** baitaitezke haurrengana eta nerabeengana hurbiltzera.
- Entzutearen Kontseiluaren gomendioa da → **eskolak udalerrri mailan parte hartzeko zubiak zabaltzea**; adibidez, batzarrak ikastetxeen eguneroko bizitzan sartzea, eta ikasgela guztietan egitea. Gelako batzarretatik udaleko haurren kontseiluetan parte hartzen duten ordezkariak atera daitezke.

Ikastetxean, astean behin, gaur egungo politikari buruzko azalpenak jasotzeko denbora-tarte bat izatea, gauza berri bat ikastera bultzatzen zaituzten gertaera garrantzitsu edo apartekoei buruzkoak. Eta eskolara ikastera goaz, ezta?

Gustatuko litzaidake era horretako informazioa jasotzeko aukera erraztea ikastetxean, horrela informazio fidagarriagoa izateko.



**Ideen postontzi bat eskolan edo gertuen dagoen osasun-etxean**

- **Etxean, neska-mutilei egokitutako ordutegian parte hartzeko informazio- eta hezkuntza-programak** susta daitezke.

- Entzutearen Kontseiluaren adibide bat Katalunian: [INFOK](#)

- **Idatziz**, hizkuntza egokitu egin behar da eta informazioa modu erakargarrian aurkeztu. Adibidez, **irakurketa errazeko aldizkari egokituak**, irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituzten neska-mutilei ulermena errazten dieten elementuak edo ikonoak dituztenak.



- Baliabide egokituak dituen web atari baten adibidea Aragoi: [ARASAAC](#).

- **Ceapat-en fitxa praktikoak** (Centro de Referencia Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas / Autonomia Pertsonalaren eta Laguntza Teknikoen Estatuko Erreferentzia Zentroa) irisgarritasun kognitiborako eskubidea errazteko.



**Gustatuko litzaidake informazioa jasotzen duten eskuorriak egin zitezten, nerabeei emateko.**

- **Parte hartzeko gonbidapena egiteko erabilitako bitartekoak dibertsifikatu:** neskek nahiago izaten dituzte jendaurrean hitz egitea eskatzen ez duten bitartekoak: idatzi, marraztu, grafitiak egin...



## **Genero ikuspegia eta aniztasuna haurren eta nerabeen parte-hartzean**

- Beharrezkoa da era guztietako aniztasunak kontuan hartzea erabakiak hartzerakoan, bi ikuspegitatik begiratuta:
  - Erabaki-hartzaileen ikuspegitik, garrantzitsua da **askotariko erreferenteak** izatea eta sustatzea. Erabakiak hartzen dituztenen artean **aniztasun funtzionaleko edo generoko, etniako, kulturako...** aniztasun egoeran dauden pertsonak ez izateak (baita neska-mutilek parte hartzeko eta elkarrekin bizitzeko beste eremu batzuetan ere, hala nola gizarte-zentro edo -erakundeetako hezkuntza-taldeetan, auzo-dinamizatzaileetan, babes-agenteeetan eta abarretan) neska-mutilen erakundeekiko mesfidantza indartzen du, haien behar eta interes partikularrak ordezkaturik ez daudelako.

- Erabaki edo neurri politiko edo administratibo jakin batzuk zuzentzen zaizkien biztanleria-sektoreen ikuspegitik, beharrezkoa da biztanleria askotarikoa inplikatzeko haiek egiteko, eta lanketa berdintasuna esplizituki sustatzen duen genero- eta aniztasun-ikuspegitik egitea. Hala, **garrantzitsua da kontsulta eta parte-hartze prozesuen esparruan berdintasuna sustatzea eta aniztasuna promozionatzea prozesuaren elementu informatzaile gisa hartuta**. Askotariko parte-hartzerik gabe eta genero- eta aniztasun-ikuspeirik gabe erabakiak hartzeak **nahi ez diren ondorio kaltegarriak** ekar ditzake, eta desberdintasuna eta bazterketa indartu. Adibidez:

- **Dibertsitate funtzionala duten pertsonak** gizarteratzearen aldeko erabakiak hartzen badira, baina ez bada gonbidatzen desgaitasun intelektuala duen pertsonarik bere ideiarik eman eta parte hartzeko, gerta daiteke desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako neurriak baino ez hartzea.

- Udalerriko azpiegiturak hobetu nahi badira, baina **neska-mutilak** ez badira modu paritarioan kontuan hartzen parte hartzeko edo kontsulta egiteko prozesuetan, litekeena da hartutako erabakiak estereotipoetan oinarritzea, esate baterako, haurrek eta nerabeei aisialdi edo kirol mota jakin bat bereziki gustuko dutelakoa. Horrela, jarduera jakin batzuk egiten dituztenek edo instalazio jakin batzuk erabiltzen dituztenek espazio publikoa gehiago erabil dezaten bultzatuko da.

- Auzo inklusiboagoak egiteko neurriak hartzen badira eta hainbat **kultura eta jatorritako jendearen** ahotsa kontuan hartzen ez bada, ez da jakingo zer zailtasun espezifiko izan ditzaketen parte hartzeko orduan (hizkuntza, diskriminazio-praktikak...).

**Futbol- edo saskibaloijokalekuak bakarrik jartzen dituzte, eta pertsona batzuei ez zaizkie kirol horiek gustatzen.**

**Ez dute kontuan hartzen beste leku batzuetako edo beste kultura batzuetako jendea.**

**Bai [kontuan hartzen dituzte hainbat kultura edo jatorritako pertsonen interesak], aldaketak egiten baitituzte, adibidez, hizkuntzak gehituta hainbat lekutan.**

# Neska-mutilak bereziki kezkatzen dituen gai bat: indarkeria eta elkarbizitza

Neska-mutilek adierazi dutenez, parte hartu nahi luketen edo beraiei iritzia eskatzea nahiko luketen gaien artean daude, besteak beste, indarkeria, diskriminazioa, berdintasuna eta aniztasuna. Nola sentitzen dira alderdi horietan, eta zer gomendio egiten diete helduei hurbileko inguruneetan bizikidetzak hobetzearekin zerikusia duten erabakietan eragiteko?



## Neska-mutilek esaten digute...

...gehienek badakitela nora jo bizikidetzak arazoren bat edo ingurunean indarkeria kasuren bat baldin badago (%66). Hala ere, galdera horri berari buruz —zure inguruan bizikidetzak arazoren bat edo indarkeria-kasuren bat badago (sexu-abusuak, eskolako jazarpena...), badakizu nora jo dezakezun laguntza emateko?—, %17k dio ez duela gai horri buruzko informaziorik eta ez dakiela norengana jo behar duen indarkeria- edo bizikidetzak arazoren bat badu. %2k zalantzak izango lituzke nola kontatu edo zer egin. %12k adierazi du ekimena har dezakeela, gai horri buruzko ideiak proposa ditzakeela, gauzatu daitezkeen, eta badakiela norengana jo behar duen.

**Badakit norengana jo behar dudan, baina ez dakit lehenago beste norbaiti zerbait kontsultatu behar diodan.**

## Neska-mutilen bizikidetzaren kontuetako eragin prozesuak hobetzeko gomendioak

- **Neska-mutilak** indarkeriaren prebentzioarekin eta bizikidetzaren sustatzearekin zerikusia duten gaiei buruzko erabakiak hartzen **inplikatzeko babes-faktorea** da. Egoera horiek oso gertutik ezagutzen badituzte, haiek dira jarduteko moduari buruzko gomendioak egiteko jarrera onena dutenak: horrela, haien parte-hartzeak egoera horiek zalantzan jartzea eskatzen du, egoera horiek azkarrago detektatzea, eta horrek dauden babes-prozedurak bultzatzea. Parte hartzeko prozesu horiek zenbait alderdi nagusi lehenetsi beharko dituzte gutxienez:
- **Informazioa hobetzea eta indarkeria-egoerak jasaten edo hautematen badituzte zein kanaletara jo dezaketen ikusaraztea**; horrek neska-mutilen inhibizioa murrizten lagunduko luke, zalantzak izanez gero.
- Neska-mutilek parte hartzeko bideak atseginak direla eta **erreferentziako pertsona ezagunak** dituztela bermatzea, akonpainamendu hobe baterako. Parte hartzeko bideak atseginak edo lagunkoia izateak zerikusia du, halaber, bi zentzutan sustatzen den konfiantzarekin: neska-mutilen sinesgarritasunean konfiantza izatea, eta tratatu oneko jarreretan erreferentziako pertsona horiek hautatu eta prestatzea.
- **Konfiantza eta enpatia** bezalako babes-faktoreak sustatzearen garrantziaz sentsibilizatzea. **Sinetsiko dietela, beren ideiak garrantzitsuak eta sinesgarriak direla** eta, beraz, beren iritziak, proposamenak, salaketak eta abar eman ditzaketela sinestea funtsezkoa da neska-mutilek **askatasunez hitz egin dezaten eta beren ideiek bizikidetzari eta indarkeriaren prebentzioari dagokienez duten garrantzia aintzat har dezaten**.

Gomendio horiek bat datoz **Érase una voz** txostenean (Bazen behin ahots bat) parte hartu zuten neska-mutilen proposamenekin, Educok 2017tik 2019ra bitartean egindako indarkeria prebentziko proiektu baten emaitza. Proiektu horretan, tratatu ona eta errespetua sustatzeko **prebentzio eta sentsibilizazio** beharra nabarmendu zuten, bai eta **Claves para mejorar la escucha activa en centros educativos. Resultados del Test de la Escucha desarrollado en el programa Activa la Escucha 2022** txostenean (Ikastetxeetan entzute aktiboa hobetzeko gakoak. Aktibatu Entzutea 2022 programan garatutako Entzute Testaren emaitzak) jasotako proposamen eta gomendioak ere.

# Kontu-ematea

Beraiei eragiten dieten gaietan neska-mutilekin kontsulta- eta partaidetza-prozesuak sustatzea azken elementu bat da, eta, horretan, planteatutako galderei erantzun behar zaie eta beren ekarpen eta proposamenen erabilgarritasuna eta ibilbidea ezagutarazi. Elementu hori, parte hartzeko prozesuaren ondoren egiten bada ere, hasieratik hartu behar da kontuan. Zer da neska-mutilentzat kontu-emate hori?

## Neska-mutilek esaten digute...

**...beraiei eragiten dieten gaien ardura duten pertsonak beren proposamenak kontuan hartzen ari diren ebaluatzeari** begira, ideia asko bururatu ahal zaizkiela horiei azterketa egiteko:

- **Azterketa** bat egin, mota askotakoa izan daitekeena, politikariek entzun dutena eta egin dutena baloratzeko.

Nerabeen kezkak ezagutzen ote dituzten baloratzeko aukera emango lukeen azterketa.

Denari erantzun diezaiotela eta, ondoren, beren iritzia eskatu, ea bakarrik buruz dakiten edo benetan lagundu nahi diguten ikusteko.

Egin duten edo egin beharko zuketuen guztiari buruzko galdetegi bat.

Azaldu diedanaren laburpena eginaraziko nieke eta hainbat irtenbide proposarazi, eta, hilabete batzuen buruan, praktikan zerbait jarri den begiratu.

- **Elkarrizketa** presentzialak izatea eta **galderak** egitea politikarien jarduerari buruzko azalpenak eskuratzeko.

Neska-mutilekin hitz egin dezatela, haiekin ganorazko solasaldia izanda.

- Itxaron politikariek **jarrera aktiboa** izan arte haiengana jotzeko.

Itxaron ea gurekin kontaktatzea eskatzen duten edo ez.

## Administrazio publikoek haurrei eta nerabeei kontuak emateko gomendioak

- **Kontuak ematea** neska-mutilei eragiten dieten gaietan **kontsulta egiteko eta parte hartzeko prozesuen berezko alderdi gisa txertatzea.**
- **Informazioa eta gardentasuna:** parte hartzeko prozesuan jarduteko dauden aukerak eta mugak jakinaraztea, neska-mutilek modu informatuan parte har dezaten eta aplikatu ezin diren proposamenei buruzko itxaropen faltsurik sor ez dadin. Hala ere, beharrezkoa da parte hartzeko prozesuak teknikari prestatuak izatea, neska-mutilekin alternatibak ko-erakitzeke, lantzen dituzten ideia eta proposamenetatik abiatuta.
- **Itzulketa atsegina:** neska-mutilek beren ekarpenen emaitzei buruzko informazioa jaso behar dute, nola zehaztu diren, zein aplikatu diren eta zein ez, zergatik, zein diren hurrengo urratsak eta abar. Horren guztiaren berri emateko euskarriak argia eta egokitua izan behar du (infografiak, komikiak, aurrez aurreko erakusketak irudietan oinarrituta...).
- Parte hartu duten neska-mutilei eskerrak emateko gutunak edo aipamenak sartzeara. Aintzatespena funtsezko osagaia da parte-hartze prozesu bateko motibaziorako (edo parte hartzeko interesa edo kultura sortzeko).

Ezinbestekoa da parte hartzeko prozesuak eta emaitzak itzultzeko prozesuak **haurren eskubideen ikuspegitik** erraztuko dituzten eta **neska-mutilen parte-hartzea benetakoa izan dadin beharrezkoak diren osagai guztiak** kontuan hartuko dituzten **teknikariak** izatea.

# Ondorioak

## Neska-mutilek beraiei eragiten dieten gaietan eragina izateko erronkak

Helduek neska-mutilen parte-hartzea erraztu behar dute, besteak beste, ekintza hauen bidez:

- **Parte-hartzerako hezi**, neska-mutilek egiteko aukera (ahal izan), egiteko prestakuntza (jakin) eta beren buruarengan konfiantza (nahi izan) izateko testuinguruak eta baldintzak sustatuz.
- **Informatu**, beren **eskubideen ezagutza** sustatuz parte har dezaketela jakin dezaten.
- **Aktiboki entzun eta ez epaitu**, neska-mutilei helduekin aritzerakoan **konfiantza sustatzeko**.

Eragin politikoko prozesuetan parte hartzean neska-mutilen ekarpen prozesuak sustatzeko, garrantzitsua da **osagai jakin batzuk sustatzea**, eta horien artean hauek nabarmentzen ditugu:

- Parte-hartzeak **garrantzitsua** izan behar du, **ez apaingarria eta/edo sinbolikoa**. Benetako parte-hartze maila bermatu behar da. Hori gerta dadin, beharrezkoa da eragina parte hartzeko prozesu zabalago baten parte izatea, eta horretan zenbait baldintza betetzea (ikus Parte-hartze eredia).
- Parte-hartzeak **informatua eta prestatua** izan behar du. Zertan parte hartuko duten, zertarako egiten den, beren bizitzetan zer eragin duen, nola presta daitezkeen eta abar jakin behar dute. Informazioa ez da soilik eman behar parte hartzeko prozesuaren aurretik (zertarako parte hartuko duten), baizik eta gauzatzen den bitartean (zer egin daitezkeen azaldu, zer ezin den egin eta zergatik) eta ondoren (beren ideiek zertarako balio izan duten azalduta).
- Parte-hartzeak **egokitua** izan behar du. Osagai ludikoa izan behar du, material dinamikoekin, hizkuntza ulergarriarekin eta abar.



## Parte-hartze eredua\*

ESPAZIOA	AHOTSA
<p><b>NOLA: Espazio seguru eta inklusiboa eskaintzen du, neska-mutilek beren iritziak eman ditzaten</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Aktiboki bilatu da neska-mutilek iritzia ematea?</li> <li>– Izan al da neska-mutilak askatasunez adierazteko leku segururik?</li> <li>– Eman al dira beharrezko pausoak neska-mutil guztiek parte har zezaketela ziurtatzeko?</li> </ul>	<p><b>NOLA: Informazio egokia ematen du eta neska-mutilen iritziak adierazten laguntzen du</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Eman al zaie neska-mutilei iritzia osatzeko behar den informazioa?</li> <li>– Badakite neska-mutilek ez daudela parte hartzera behartuta?</li> <li>– Adierazpen-aukera eta -modu ugari eman zaizkie neska-mutilei?</li> </ul>
ENTZUKETA	ERAGINA
<p><b>NOLA: Neska-mutilen iritziak horiek entzuteko ardura duen norbaiti jakinarazten zaizkiola egiaztatzen du</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ba al dago neska-mutilen iritziak jakinarazteko prozesurik?</li> <li>– Ba al dakite neska-mutilek nori helarazten zaizkien beren iritziak?</li> <li>– Erabakiak hartzeko gaitasuna du pertsonak/erakundeak?</li> </ul>	<p><b>NOLA: Neska-mutilen iritziak kontuan hartzen direla eta, egoki denean, praktikan jartzen direla egiaztatzen du</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Neurriak hartzeko gaitasuna duten pertsonak/erakundeek kontuan izan al dituzte neska-mutilen iritziak?</li> <li>– Ba al dago prozedurarik neska-mutilen iritziak seriotasunez kontuan hartzen direla bermatzeko?</li> <li>– Eman al zaie feedbackik neska-mutilei hartutako erabakiak azaltzen?</li> </ul>

\* Laura Lundyren eredua, Europako Kontseilutik ateratakoa (2020). (Geure itzulpena).

# Bibliografia eta beste baliabide batzuk

**Elena Bernia eta Paloma de la Cruz (2021).** Haurren eta nerabeen parte hartzea.

Administrazio Publikoentzako Gidaliburua.

[https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/participacion\\_infancia\\_y\\_adolescencia.\\_guia\\_administraciones\\_publicas.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/participacion_infancia_y_adolescencia._guia_administraciones_publicas.pdf)

**Educo (2022).** Gazte aktibistentzako gida.

<https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/activa-la-escucha/material/guia-didactica/guia-activa-la-escucha-eus-2021.pdf>

**Educo (2019).** Informe Érase una voz. Si no nos crees, no nos ves.

<https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/campanas/informe-erasureunavoz-resumen-2019.pdf>

**Consejo de Europa (2020).** Manual del Consejo de Europa sobre participación infantil para profesionales que trabajan con y para niños, “Escuchar – Actuar – Cambiar”.

[https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/7417\\_d\\_ManualConsejoEuropapParticipacionInfantil.pdf](https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/7417_d_ManualConsejoEuropapParticipacionInfantil.pdf)

**Alfredo Hoyuelos (2017).** Prólogo a la edición española, en *Loris Malaguzzi y las escuelas de Reggio Emilia Una selección de textos y discursos de 1945 a 1993*.

**Ceapat (2023).** 10 fichas sobre la accesibilidad cognitiva por derecho.

<https://ceapat.imserso.es/publicaciones/informe-publicacion>

Entzun dezatela  
ekiteko, ez soilik egin  
behar dutelako.



 [educu.org](http://educu.org)

 [@educu.org](https://www.facebook.com/educu.org)

  [@educu\\_ONG](https://www.instagram.com/educu.org)

